

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3313

1266/2025 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita erizaintzako laguntzailea kategorian (erizaintzako laguntzailea, osasun mentaleko erizaintzako laguntzailea eta osasun mentaleko monitorearen lanpostu funtzionalak) 2020-2021-2022ko EPEko barne-sustapeneko txandaren bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1836/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren erizaintzako laguntzailea kategorian (erizaintzako laguntzailea, osasun mentaleko erizaintzako laguntzailea eta osasun mentaleko monitorearen lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 18ko 1264/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren erizaintzako laguntzailea kategorian (erizaintzako laguntzailea, osasun mentaleko erizaintzako laguntzailea eta osasun mentaleko monitorearen lanpostu funtzionalak) 2020-2021-2022ko EPEko barne-sustapeneko txandaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEtan deitutakoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da izangaien behin betiko ebazpenaren I. eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeko ebazpena, indarrean dagoen legeriak langileen arloan emandako ahalmenez baliatuz.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAAn argitaratzeko agintzea 2020-2021-2022ko EPEko barne-sustapeneko txandaren bidez eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla erizaintzako laguntzailea kategorian (erizaintzako laguntzailea, osasun mentaleko erizaintzako laguntzailea eta osasun mentaleko monitorea lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiek zita eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargokide-egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikoen hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzearagozko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta

2025eko uztailaren 29a, astearta

hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dutela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorren 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko uztailaren 29a, asteartea

ERANSKINA
2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO
DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEA
BARNE SUSTAPENA OPOSIZIO LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangai	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9968**	Iriondo Larrañaga, Marta	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Ospitalizazioa-Kritikoen ospitalizazioa-ZIU / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2 2024-12-03
***2059**	Guerrero Milla, Ana	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Zaldibariko Ospitalea-Zaldibar / Ospitalizazioa-Azpiakutuen eremua / Errehabilitazioa-Azpiakutuen Eremua / Errehabilitazioa / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2 2023-12-03
***3002**	Garcia de Olano Mauleon, Nerea	Arabako Errioxako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / Ospitalizazioa- Ospitalizazio medikoa-Barne-medikuntza / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2 2022-05-20
***6862**	Leniz Uriondo, Maria Rosario	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Ospitalizazioa- Errehabilitazioa-Errehabilitazioa / Txandakakoa, 3 Txandatan- Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***8236**	Olabuenaga Romero, Izaskun	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Ospitalizazioa-Ospitalizazio medikoa-Barne-medikuntza / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***7590**	Cañamero Santos, Miriam	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Ospitalizazioa-Ospitalizazio medikoa-Neurologia / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2 2020-12-03

2025eko uztailaren 29a, asteartea

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***6156**	Benitez Erefozaga, Miren Josu	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Ospitalizazioa-Errehabilitazioa-Errehabilitazioa / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***0124**	Lopez Martinez, Ana Maria	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Ospitalizazioa-Ospitalizazio medikoa-Digestio-aparatua / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***6871**	Izurieta Astoreca, Miren Nekane	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Zamudioko Ospitalea-Zamudio / Ospitalizazioa-Akutuen eta azpiakutuen eremua-Akutuen eta Azpiakutuen Eremua / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***0630**	Fortuño Basoco, Maria Pilar	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Zaidibarko Ospitalea-Zaidibar / Ospitalizazioa-Azpiakutuen eremua / Errehabilitazioa-Azpiakutuen Eremua / Errehabilitazioa / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***9468**	Rosillo Barrena, Maria Isabel	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Ebakuntza-gela / Bloke kirurgikoa-Larrialdien ebakuntza-gela-Larrialdien ebakuntza-gela / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***9121**	Castillo Zabala, Sarah	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Ospitalizazioa-Ospitalizazio kirurgikoa-Ospitalizazio kirurgikoa / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2
***4226**	Maguregui Gorospe, Edurne	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Kanpo-kontsultak-Kanpo-kontsultak-Kanpo-kontsultak / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***0445**	Goikoetxea Vivaracho, Cristina	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Ospitalizazioa-Ospitalizazio kirurgikoa-Ospitalizazio kirurgikoa / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2

2025eko uztailaren 29a, astearta

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9418**	Roman Salgado, Benita Josune	Arab. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Arabako Ospitale Psikiatrikoa-Vitoria-Gasteiz / Ospitalizazioa-Azpiakutuen eremua-Azpiakutuen Eremua / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Besterik gabe	2